

Etorkina eta bertokoa

Euskaldunon Egunkaria, 1991-11-10: 2.

Alasne Iturriotzek egin berria dio EUTGko Historia irakasle den *Xoxe Estevez*-i EGUNKARIArako elkarrizketa bat; aspaldi gure artean bizi den abertzale galiziar honek zera esan dio interesgarri diren beste gauzen artean: *sentipen nazionalista bere herritik jaso behar duela etorkinak*. Egia borobila da hau, eta geuk oso kontuan hartzekoa. Galiziako baserri batetik datorren Xoxe Estevez-ek badaki ongi, berez, abertzale euskaldunak propioak dituen loturak nola sentitzen dituen. Euskaldunak, galziarrak bezala, atzerriratzearen esperientzia eta erbesteratzearen eskarmentua, biak ditu; galziarrak bezala sentitzen ditugu lurraren herrimin bereziak, hizkuntzaren musika eta tradizioak. Amerikan ezagutu ditut pertsonalki, katalanak bezala, eta onak izan dira beti geure elkarte nazionalen artekoak. Sortu izanda, prentsan, espainiarrak eragindako istilurik: geuk, hiru taldeok, geureak ziren dantzak, musika eta geure hizkuntzaganako jai eta ospakizunen izpiritua, bereizkeria, insolidarioaren seinale zela: Espainiako (eta Amerikako ere!) gazteleraren aurkako seta gaizto bat. Neronek erantzun nien, geure herriok ez zirela Hispano-Amerikaren aurkakoak, Espainia ofiziala (eta orduan frankista!), izan zela inoiz geure herrien kultura errespetatu ez zuena. Esaten nien venezolarrei, beste modu batera, Estevez-ek dion zerbait: geu, 'separatistok' ginela Amerikako herrienganako fidagarrienak, zeren eta gure herrietako lurra eta kultura maite genuela erakusten genuenok ginela lur berriko kulturak maitatzeko gauza, ez alderantziz. Bere ama maite ez duena dela, beste inoren amarik funtsean maitatzeko gai ez dena. Galizia maite duen galziarrak, euskaldunokin bizitzera datorrenean Euskadi ere maiteko du.